

disenatua Aitor Zumalabe



bertsopaper-lehiaketa

BALENDIN ENBEITA



lehiaketa

bertsopaper



Algortako bertsolari eskolaren XXV. urteurrena

BALENDINENBEITA



Y. s a r r i a

Balendin Enbeita bertsoetan

Algorta, 1979-7-29

H

emen gatoz atzera, etenaldi baten ostean, gure BALENDIN ENBEITA bertso-paper lehiaketaren 7. edizioa iragartzen. Deialdi honen bitartez, zuen bihotzeko teklak sakatu gura ditugu, barru-barrutik idatz ditzazuen euskaldun guztien bihotzei eragiteko moduko bertsoak. Era berean, esan gura dizuegu hemendik aurrera lehiaketa hau urte birik behin eratzeko asmoa daukagula, halandaze gogoan izan urte bakoitietan BALENDIN ENBEITA zenaren omenezko lehiaketa honetan zuen bertsoak jartzeko aukera parebakoa izango duzuela.

A R R A U A K

PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan edonongo bertso-jartzaileek har dezakete parte. Adinaren arabera, atal bi bereizi ditugu.

- **Helduak:** 19 urte edo gehiagokoak.
- **Gazteak:** 18 urtera artekoak, 2005ean 18 betetzen dituztenak barne.

EGIN BEHARREKO LANA

Bertsoen gaia, neurria eta doinua libreak izango dira parte-hartzaile guztientzat.

- Helduen atalean, parte-hartzaile bakoitzak gutxienez 8 bertso egin beharko ditu, eta gehienez 12.
 - Gazteen atalean, parte-hartzaile bakoitzak gutxienez 6 bertso egin beharko ditu, eta gehienez 10.
- Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste bertso-sorta aurkez dezake.

EPEA ETA BALDINTZAK

- Lanak jasotzeko azkeneko eguna, 2005eko irailaren 1a izango da.
- Bertso guztiek berriak izan beharko dute, hots, beste inon saritu edo argitaratu gabeak.

NORA ETA ZELAN BIDALI

Bertsoak posta arruntez zein posta elektronikoz bidal daitezke.

- Posta arruntez bidaltzekotan, bertso-paperean ez du egilearen izenak agertu behar. Bertso-sorta bakoitza izengoitiz sinatuko da eta egilearen izen-abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefonoa/faxa/e-maila aparteko gutunazal batean sartuko dira, kanpoaldean izengoitia ageri dela. Gutunazal bien egilea zein ataletara aurkezten den ipini behar da.

Hona hemen gure helbidea:

BALENDIN ENBEITA 7. SARIA

bertso-paper lehiaketa

ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA "ALBE"

12 posta-kutxa, 48990 Algorta/GETXO, BIZKAIA

- Bertsoak posta elektronikoz bidali gura badira, Word formatuko dokumentu bi bidali behar dira. Batean bertso-sorta bera eta goitizena; eta bestean goitizena eta norberaren xehetasunak. Hona hemen gure helbide elektronikoa:

albegetxo@euskalnet.net

SARIAK

Helduentzat:

1. saria: txapela, 1.200 € eta garaikurra.
2. saria: 900 € eta garaikurra.
3. saria: 600 € eta garaikurra.

Gazteentzat:

1. saria: txapela, 300 € eta garaikurra.
2. saria: 150 € eta garaikurra.
3. saria: 90 € eta garaikurra.

Bertso-jartzaile batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso, halandaze lortzen duen saririk handiena emango zaio.

EPAIKETA ETA SARI-EMATEA

• Epaimahaia ALBEk eratu du eta sariak 2005eko abenduaren 10ean emango dira, Algortako Getxo Antzokian, 19:00etan hasita, egingo den AHOBIEEN GALA ekitaldiaren barruan.

- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.
- Epaimahaiak sariren bat jaberik gabe utz lezake, bai eta akzesit bat edo beste eman ere, hala iritiziz gero.

LANEN JABETZA ETA BESTELAKOAK

- ALBEk izango du aurkezturiko edozein lan argitaratzeko eskubide osoa.
- ALBE izango da saritutako eta argitaratutako lanen jabe. Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar. Arautegi honetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, ALBEk izango du erabakitzeko ahalmena.

Lehiaketari buruzko informazio gehiago gura izanez gero, hona hemen harreman-bideak:

- Telefonoa: 605 704 385 • E-maila: albegetxo@euskalnet.net • Web gunea: www.albegetxo.net

